

Memoria gorde,  
oraina bizi,  
etorkizuna eraiki,  
izan Kronikalari!



## OHITURA ZAHARRAK

### Urte Zaharreko Erronda, gaur

Ohiturari jarraituz, Urte Zaharreko Erronda antolatu du Ohitura Zaharrak abesbatzak, gaur arratsaldean. 17:00etan abiatuko dira, udaletxeko arkupeetatik, kantu, koplak eta bertsoz agurtzeko urtea. Herritarrei luzatu diete gonbitea, azaltzeko. ||

## PORTU AUZOA

### Portukoak, Santa Barbaran gora

Santa Barbarara mendi buelta egingo dute gaur, Portuko auzotarrek. Plazatik abiatuko dira, goizeko 10:30etan, urte bukaera ospatzeko. ||

## KRONIKA

### Euskadi Irratiko 'Mezularia' saioan, gaur arratsaldean

Euskadi Irratian egongo da Kronika gaur ere, *Mezularia* saioan, bailarako gaien berri emateko. 18:30etan izango da, eta Kronikarekin batera egongo dira Jon Zarautz eta Axel Jauregi hernaniarrak, 2019ko Uniraid abentura solidarioan parte hartuko dutenak, Marokon. ||

## UDALA

### Pintxo ikastaroan, izenematea zabalik

Sukaldaritzako ikastaroa antolatu du Hernaniko Udalak, urtarrilaren 9tik martxoaren 13ra bitarte. Zehazki, pintxoak egiten ikasteko kurtsoa izango da, eta Transparren egingo dute, asteazkenetan, iluntzeko 19:00etatik 21:00etara. Izenematea zabalik dago, Biterin. ||

## GABONAK

### Ekintza ugari, asteazkenetik

Bihar arte hartu dute atseden, Gabonetako ekintzek; baina makina bat aukera izango dira berriro, asteazkenean hasita: aerobik (10:30) eta *spinning* (11:30) kiroldegian; komiki tailerra (11:00) liburutegian; ipuin kontaketa (11:00 eta 11:30) Biterin; eta ekintza lasaiak (16:30) Gaztelekuan. ||

## WUKROREN ALDEKO SAN SILBESTREA

# Mozorro festa, urtea korrika bukatzeko

Wukroren aldeko San Silbestrea egingo dute gaur, arratsaldeko 17:30etan hasita, gaztetxoan lasterketekin; 18:00etan izango da proba nagusia. Mozorro onenak, saria izango du.

EGURALDIA ere lagun izango dute aurten, urtea korrika eta umore ederrean agurtu nahi dutenek. Wukroren aldeko San Silbestrea egingo dute gaur, arratsaldeko 17:30etan hasita.

Gaztetxoak izango dira korrika egiten aurrenekoak. Hasteko, 8 urte artekoak abiatuko dira, 300 metroko ibilbidea osatzeko. Ondoren, 17:45etan, 9-13 urte bitarteko txanda izango da, eta 800 metro egingo dituzte haiek.

Eta azkenik, 18:00etan abiatuko da lasterketa nagusia, 14 urtetik gorakoena. Aurreko urteetan bezala, 4 kilometroko zirkuitua osatuko dute: Plazatik Lizeaga aldera abiatu, auzoari buelta eman, Atzietatik Zinkoeneara jaitsi eta handik Floridara, Montebideo eta Karmelo Labakatik Latsunbeberria igo, auzoari buelta, eta Urbieta kaltetik Plaza Berrira azalduta,

Kale Nagusian gora bukatu, ikusleek osatuko duten pasilotik igarota, Plazaraino.

### Azkeneko izenematea gaur, irteera gunean bertan

Korrikalariak, Plazan jasoko dituzte dortsalak eta opariak, probaren aurretik. Eta oraindik apuntatu ez direnek, bertan izango dute azkeneko aukera; 11 euro izango dira.

Hiru lasterketetan, sariak emango dizkiete aurreneko hiru sailkatuei; eta aurten ere, beste sari berezi bat ere izango da: mozorro onenari saria.

Urtero urtero, mozorrotuta hartu dute parte, hainbat eta hainbat korrikalari; baita iaz ere, eguraldi petrala izan arren. Beraz, gaurko iragarpena ikusita, ez dira gutxi izango, mozorro originalenak bilatu, eta urtea korrika bakarrik ez, umorez agurtuko dutenak. ||



Eguraldi petralarekin ere, laz mozorrotuta atera ziren hainbat korrikalari.

## GABONETAKO AZOKA

# Liburu eta disko azoka, goiz osoan zehar

Gabonetako azoka jarriko dute gaur, 10:30etatik 14:00etara, Plaza Berrin. Emateko ere, aukera.

URTE Zahar Egunez jarriko dute gaur, beste behin, Gabonetako disko eta liburu azoka, Hernanin. Plaza Berrin izango da, eta goiz osoan zehar egongo da, 10:30etatik 14:00etara.

Jakinarazi dutenez, «egoera onean» dauden 1.000 liburu, disko eta CD baino gehiago izango dira aukeran, postuan.

Baina erosteko bakarrik ez, emateko ere izango da aukera:

«nahi duenak, eman ditzake erabiltzen ez dituen liburu, musika CD eta binilozko diskoak. Entziklopediarik eta aldizkariak ez dugu jasoko. Gainera, materiala eman nahi duenak ezingo balu gaur azaldu, gurekin jarri daiteke harremanetan, [azokasolidario@gmail.com](mailto:azokasolidario@gmail.com) helbide elektronikora idatzita». [www.azokasolidario.com](http://www.azokasolidario.com) web orrian, informazio gehiago. ||



Adin guztietako herritarrentzat izango da aukera, azokan.

**BIKAIN**  
OKINDEGI TA GOZOTEGIA

**Eguneroko ogia beti bikain**

Elkano 12 - Tel.: 943 55 31 42  
Eziago poligonoa - Tel.: 943 55 00 89      20120 Hernani

**Samitek**  
Bulego makinaren salmenta eta mantenimendua  
[samitek@samitek.es](mailto:samitek@samitek.es)  
[www.samitek.es](http://www.samitek.es)

**TOSHIBA**

INFORMATIKA  
SAIL BERRIA

943 11 77 44

Dokumentuen kudeaketa  
Ez galdu paperak

**Latxe**

**Bosgarren alea kalean!**

[latxe@kronika.eus](mailto:latxe@kronika.eus)  
943 33 08 99

Urumeako ur-ttikitan barrena

☎ TAXIAK: 943 550093 | UDALTZAINGOA: 943 248900 | DYA: 943 464622 | AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 | ANBULATORIOA: 943 006666 - 943 203020 | JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK: 943 331103 ☎ GAUR: / Egunez: Etxebeste Elkano, 9 (Hernani) 943 552087 / Gaeuz: Castilla Urbieta, 7 (Hernani) 943 552941 BIHAR: / Egunez: A. Etxebarria Andre kalea, 48 (Hernani) 943 551793 / Gaeuz: Aldabe Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani)

## ERREMONTEA BINAKAKO TXAPELKETA



Lau finalistak, trofeo eta txapelak jasota. Maialen Andresen argazki gehiago: [www.kronika.eus](http://www.kronika.eus).

# Hasiera-hasieratik alde eginda, Uterga eta Azpiroz txapeldun

2-15 partzialarekin ekin zioten partiduari urdinek, eta espero baino errazago nagusitu ziren azkenean (27-40), Juanenea eta Endikaren kontra.

NAHI baino emozio gutxiago izan zuen Binakako Txapelketaren finalak, larunbat arratsaldean. Berehala egin zuten ihes markagailuan urdinek, Utergak eta Azpirozek, 2-15 jar-tzeraino; eta azkenean, espero baino errazago jantzi zuten txapela, 27-40 irabazita Juane-nea eta Endikari.

Galarreta bete zuten 1.000 zale ingururen aurrean, hamar minututan eman zioten kolpea finalari. Oso bizi ekin zioten urdinek, eta aldiz, partiduan sartu ezinik gorriek. 2-15 horretatik aurrera, jokua berdindu egin zen, baina ez zuten

lortu markagailuan gerturaztea; are gehiago, tarte haunditu ere egin zen, batzuetan: 12-31koa izan zen alde nabarmena. Azkenean, Azpirozen nekeak indar pixka bat eman zien gorriek, baina 27-37 gerturatu ziren gehien.

Zenbakiak ere erakusten dute, urdinen partidu sendoa: 21 tanto egin zituen Utergak, akats bakarrarekin; eta Azpirozek 11 tanto, horietako 7 sakez, eta hiru akats.

Finalaren ondoren, Utergak azaldu zuen «oso zentratuta» hasi zutela partidua, «pelota ondo kokatuz», eta aurkariak

ez zutela beraien maila eman; «neurri batean, ez diegulako utzi, eta urduritasunak ere eragina izan du». Azpirozek zioen, «nerbioak aldagelan» utzi zituela, eta «oso eroso» aritu zela. Ez, ordea, Juanenea: «hasieran bi-hiru pelota garbi huts egin ditut, eta nerbioek kalte egin didate», onartu zuen.

**Barrenetxea, atzelari onena**  
Finalaren ondoren banatu zizkieten sariak, txapelketako onenei ere. Uterga izan da arrerari onena, eta finalera iritsi ez arren, Endika Barrenetxea hernaniarra atzelari onena. ■

## BOLEIBOLA



Hernaniko boleibol taldeko kideak, Logroño Arluy Superligako liderraren jokalariekin.

## Onenen artean ikasten, Hernaniko boleibol harrobia

Gabonetako Txapelketa jokatu zuten Logroñon, aurreko asteburuan, Hernaniko boleibol taldeek, Logroño eta D'Elhuyar taldeekin. Goiz ederra pasa zuten jokoan, eta arratsaldean borobildu zuten, Superligako partidua ikusteko gonbitearekin. Argazkia ere atera zuten, Logroño Arluy taldeko kideekin. Ligako liderra da talde errioxarra, partidu guztiak irabazita. Onenetatik ikasteko aukera izan zuten, beraz, hernaniarrek. ■

## ORAIN HERNANI PRENTSA OHARRA

# «Hobe bizitzeko Hernani bat opa dizuegu 2019an»

Orain Hernanik azaldu du, «sorreratik ezarritako lau urteko zikloaren bukaeran» dagoela, eta urte berria zoriondu nahi izan die hernaniar guztiei.

URTEA bukatzera doanean, hernaniarrei zuzendu zaie Orain Hernani, haien partehartzea eskatu eta eskertzeko, eta urte berria zoriontzeko.

«Sorreratik ezarritako lau urteko zikloaren bukaeran da Orain Hernani. Lau urte darazkigu, Orainen konfiantza eta botoa jarri zuten pertsonen itxaropenei aurre egin nahian. Hobeto edo okerrago egin dugu, baina ez zaigu inoiz falta izan ilusiorik eta herria hobetzeko lan egiteko gogorik», azaldu du taldeak. Eta nabarmendu du: «bereziki atseginak izan dira eduki ditugun topaketak, gure taldearengana proposamen, iradokizun zein kekekin hurbildu diren pertsonenkin. Hernanin espazio berri bat irekitzen saiatu gara, herriarrek beraiek udal politi-

kan aktiboki parte hartzea sustatzeko asmoz; eta benetan, umiltasunez uste dugu, herri hobe bat egiteko pertsona guztien lankidetzaren beharrezkoa dela», adierazi dute.

### 2019an, «Hernani garbiago, zainduago, irisgarriago, partehartzaileago, alaiago eta gardenago bat»

Bestalde, «azkeneko urteetan bezalaxe», urte berria zoriondu nahi izan die Orain Hernanik, hernaniar guztiei: «2019rako, Hernani garbiago, zainduago, irisgarriago, partehartzaileago, alaiago eta gardenago bat opa dizuegu; eta usain eta zarata gutxiagorekin, ahal bada. Hobe bizitzeko herri bat opa dizuegu, eta harro sentitzeko aukera emango diguna, Hernani martxan utzi izanagatik». ■

## Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

	<b>Joaquin Iceta Pagola</b> 1963ko urriaren 11n hil zen	
	<b>Mayi Pikabea Ducaz</b> 2011ko urtarrilaren 1ean hil zen	
	<b>Joxe Igarritz Etxeberria</b> 2004ko abenduaren 25ean hil zen	
Aspaldi joan zineten, baino betirako zaudete, gure bihotzean, maite zaituztegu		
<b>ZURE EMAZTE, SEME-ALABAK, BILOBAK ETA BIRLOBAK</b>		
Hernanin, 2018ko abenduaren 31n		

<b>III. URTEURRENA</b>	
<b>Milagros Ormazabal Lasa</b>	
2016ko urtarrilaren 1ean hil zen, 80 urte zituela	
-Goian Bego-	
Betiko izango zaitugu gogoan.	
<b>ETXEKOAK</b>	
Hernanin, 2018ko abenduaren 31n	

## IRAGARKI MERKEAK

Pertsona bat behar da adineko bat zaintzeko, titulazioarekin. Kontratua eta gizarte segurantzarekin. Deitu: 649 887 976

**LOGIKALINE** enpresak **BOST TELEOPERADORA LANPOSTU** bete behar ditu. Lana Hernanin egiteko da. Kontratua: 6 hilabete, hasteko. Gaztelera eta frantsesa eskatzen dira. Lanaldi osoa. Bidali c.v. [rrhh@logikaline.com](mailto:rrhh@logikaline.com) edo deitu 943 31 86 06

**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)